



Legorreta etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Liórreta



43° 10' 39"

2° 34' 53"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Legorreta... situada en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con inclusión del terreno basurero que está en frente cincuenta y cuatro estados equivalentes dos áreas y seis centiareas de cabida, y la que se compone de sus correspondientes pisos, divisiones y habitaciones..."

DJE, 2/ 118. or. (1867)

Sallobente-Mendibil eta Eitua kofradien arteko muga kokaturiko baserria da honako hau. Beste hainbat kasutan bezala, baserri honen izena aldaketa barik dokumentatu da XVIII. mende amaieratik hona. Horrela, 1796ko Bizkaiko su-erroldan *Legorreta* aurkitzen dugu, eta izen bera jasotzen da 1859ko izendegian zein XX. mende hasierako erroldan (1910, BUA, RU). 1930eko hamarkada amaieran, ahozko erabileraren ondorioz, *Liorreta* (1939, BUA, 37. or.) forma jasotzen da, eta hori da berriztarrek erabilitako ahozko forma ere *Liórreta*.

XX. mendean berrikuntza sakona eduki duen baserria da, gaur egun daukan itxura hartu

arte, nahiz eta XVIII. mende bukaerakoa edo XIX. mende hasierakoa izan daitekeen. Bi isurritako teilatuaren azpian fatxada ordenatuko etxea antzeman daiteke, pisu bi eta ganbaraduna. Atarte zabala alde batean dauka. Bere egunean egurrezko dintelduna zen, baina orain hormigoizkoa ageri da, dobelak imitatuz. Ondoko leiho bakarra, oster, harlanduzkoa da. Goiko hiru leihoek hegi moldaturatua daukate eta hauetan ere harlandua erabili zen, eta dobelak eta giltzarria irudikatu ziren. Ganbarakoak neurri ezberdinetakoa dira teilatuaren formari egokitu zaizkiolako. Harlangaitza erabili zuten etxea jasotzeko eta juntura guztiak zuriz markatuta daude.

toponimia

Toponimo xehe eta arrunta etxe-izen bihurtu zena. Izenaren osagaiak lehor hitza eta ugaritasuna edo lekua adierazten duen -eta atzikia dira. Gipuzkoan ere bada izen bera duen herria.